

# GABONAK ARTE

Esperientzia artistikoak haurrentzat eta familientzat

27 ABENDUA > 4 URTARRILA  
2018 2019



#GabonakArte18  
#BilbaoGabonak

**Bilbao**

Laguntzaileak

Grupo **Urbegi**

fundación

edp

**Az**  
Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)



[info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus)  
PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO - 944 014 014

© 2018. Centro Azkuna de Ocio y Cultura S.A.

# GABONAK ARTE

## Esperientzia artistikoak haurrentzat eta familientzat

0 eta 99 urte bitartekoentzat

2018ko abenduaren 27tik 2019ko urtarrilaren 4ra

Eguberrietan egiten den Gabonak Arte programak esperientzia artistikoak ditu haurrentzat eta familientzat. Era askotako jarduerak proposatzen ditugu, kultura garaikide askotarikoan murgiltzeko eta berdintasuna sustatzeko, era askotako hizkerak erabiliz, hala nola artea, antzerkia, dantza, musika, zinema, literatura eta kultura digitala.

Ataria leku fantastikoa eta berezia bilakatu, eta aukera izango dugu Portugalgo 'Projeto Ez' konpainiaren *Ez Sub* hiriko urpeko ontzia aurkitzeko, 'The Plastic Clono Band'-ek jotako 'Beatles'-en *Yellow Submarine* kantuaren doinuan. Espazio horretan, 'Zum Zum Teatro' konpainiaren hipopotamo urdinak hausnarrean arituko dira gizatasunaz eta animaltasunaz, alegiazko planeta bat eraiki ahal izango dugu taldeka, eta ikus-entzuleek aukera izango dute Eguzkiaren Pantailako parte bilakatzeko, Peter Weibel eta Matthias Gommel artista alemanen *Flick\_Bi* instalazio interaktiboan parte hartuta.

'Mama Crea'ren mamu-ferian *Bapateko Istorioak* izango ditugu, karrusel txiki baten pieza abandonatuek beren lehenagoko bizitzako istorioak kontatuko baitizkigute, 'Krego-Martín'-en *Espres Mugimenduak* espazio bat prestatuko du dantzatzeko, jolasteko, esploratzeko eta barre egiteko..., eta Thierry Martínez eta Carmen Larraz koreografoek *Atalak 2.0* programaren barruan 'Dantzaz'-ekin izan duten egonaldiaren emaitza aurkeztuko digute.


Bestalde, hainbat ekoizpen izango ditugu haurrentzat, esaterako, 'Producciones Maestras'-en *Martinaren parke fantastikoa*, 'Laenanaranja'ren *Kontukantari 2. Mendian Ibiltari* eta 'Zig Zag Danza'ren *Aupapá*.

Pentsatu, imajinatu, entzun, irakurri, dantzatu, kantatu, jolastu, esploratu, barre egin... Dibertsioa bermatuta dago.

Gonbit egiten dizuegu sorkuntzako esperientzia ludiko hauetako protagonista izateko, harritzeko eta jakin-mina esperimentatu eta bultzatzeko.

# GABONAK ARTE ESPERIENTZIEN MAPA

## KULTUREN ATARIA



**Bapateko Istorioak**  
Antzerkia

**The Plastic Clono Band**  
Musika

**Espres Mugimendua**  
Dantza

Iparragirre  
kalea

**Planeta Imaginarioa**  
(JOZ 1)  
Arkitektura

**Kontu Kontari**  
(Erabilera askotarako aretoa)  
Literatura

**AUDITORIOA. -1 solairua**

**Martinaren Parke Fantastikoa**  
Antzerkia

**Kontukantari2. Mendian Ibiltari**  
Antzerkia

**BASTIDA ARETOA. -2 solairua**

**Aupapá**  
Dantza

- 3€ / 2€ Az txartelarekin
- 1€
- Sarrera dohainik
- 8€ / 6€ Az txartelarekin

Sarrerren salmenta:  
Infopuntua / [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)  
Sarrera mugatua da jarduera guztietan

**ATARIKO ESPERIENTZIAK EGUNEKO BONUA:**  
8€ / 6€ Az txartelarekin. *Bapateko Istorioak, Harri, orri, at, Espres Mugimendua* eta *Planeta Imaginarioa* jarduerak hartzen ditu barnean. Bonua jardueraren aurreko egunean edo egun berean erosi ahal da Infopuntuan.



ABENDUAK 20 > URTARRILAK 27

PETER WEIBEL & MATTHIAS GOMMEL

## Flick\_Bi

### Argazki-galeria herritarra

Arte garaikidea

#### Kulturen Ataria

Euskera, Gaztelania, Ingelesa  
Publiko guztiak

#### Zentroaren ordutegia:

Astelehena-Osteguna: 7:00-23:00 / Ostirala: 7:00-24:00 / Larunbata: 8:30-24:00 / Igandea: 8:30-23:00

**Gabonetako ordutegi berezia: abenduak 24 eta 31: 7:00-20:00 / Abenduak 25, eta urtarrilak 1 eta 6: 10:00-23:00**

€1

*Flick\_Bi* autorretratuei buruzko instalazio interaktiboak aukera ematen dizu nortasun-agiriaren tamainako argazki bat ateratzeko eta erakusketaren parte izateko. Txanpon baten truke, zure argazkia ohiko eran inprimatuko da, baina Kulturen Atariko eguzkiaren pantailara ere transmitituko da. Aldi berean, irudiak [www.zkm.de/flick\\_bi](http://www.zkm.de/flick_bi) web orriara igoko dira, aurreko erakusteetan ateratako milaka erretratuekin batera egoteko.

Instalazio honek aukera ematen die ikusleei haien argazkia espazio errealean ikusteko, erretratua espazio birtualean egoteaz gain. Espazio birtual eta lekuz aldatu honek sare sozialen izaera islatzen du. Selfien autorretratuaren bidez, pertsonak espazio publikoetan izaten zuten jokaera aldatzen hasi da. Gaur egun, nola halako garrantzia duen edozein ekitaldi akuilua da, parte-hartzaileek selfieak egin ditzaten, eta horiek berehala hedatu daitezke mundu osoan barrena.


*Flick\_Bi* proiektuak erretratuek aro digitalean duten funtzionaltasuna iragartzen du.

#### FITXA ARTISTIKOA:

**Peter Weibel/Matthias Gommel. FLICK\_BI (2007/2018)**

Instalazio interaktiboa: Fotomatoia, 5 ordenagailu, 5 monitore, web artxiboa

[www.zkm.de/flick\\_bi](http://www.zkm.de/flick_bi)



ABENDUAK 27 > 29

Osteguna > larunbata

URTARRILAK 2 > 4

Asteazkena > ostirala

## Harri, orri, at

Literatura

### Kulturen Ataria

12:00-14:00 / 17:30-19:30

3€ / 2€ Az txartelarekin | *ATARIKO ESPERIENTZIAK EGUNEKO BONU*Aren barruan (+info: 5 or.)

Euskera, Gaztelania  
Familientzat. 3 urtetik aurrera


Liburuen bitartez sormena eta irudimena astintzen dugu. Liburuekin inoiz ikusi ditugun herrialde erreal eta asmatuak ezagutzeko aukera dugu. Ezagutu eta guk geuk geografia harrigarri horiei nahi dugun forma eman diezaiekegu. Irakurlea txoria lez hegaz doa, norbere mugetatik ireki eta zabaldu egiten da. Liburuak dira ezezagunaren aurrean kuriositatea pizteko motorra.

Eta hala, hitza eta irudiaren bitartez jolastera gonbidatuko gaitu espazio berezi honek. Liburu orrietatik abiatuta paperezko poesia bisualak sortuko ditugu liburu orri horiek moztuz, margotuz, tolestuz eta forma harrigarriak emanaz. Nagusi eta txikientzako txoko honetan murgiltzeko, hegaz egiteko gogoia besterik ez da behar.

Itziar Zorita eta Itziar Imazek espazio honen kontzeptua eta diseinua garatu dute Mediatekako kideekin batera. Zorita, ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua da eta arte eszenikoetan dokorea. Itziar Imaz, aldiz, arkitekta da. Biak arte mediazioan ere dabilta, irakasle lanetan eta kultura eta hezkuntza erakundeetako proiektuen garapenean.

FITXA ARTISTIKOA:

Idea: **Itziar Zorita eta Itziar Imaz**



ABENDUAK 27 > 29

Osteguna > larunbata

URTARRILAK 2 > 4

Asteazkena > ostirala

MAMA CREA

## Bapateko Istorioak

Antzerkia / Soinu instalazioa

**Kulturen Ataria**

**12:00-14:00 / 17:30-19:30**

**Emanaldiak 30 minuturo**

**3€ / 2€ Az txartelarekin | ATARIKO ESPERIENTZIAK EGUNEKO BONUAren barruan (+info: 5 or.)**

Euskara, Gaztelania, Ingelesa  
Familiarentzat. 3 urtetik aurrera

Ezohiko tokietako bat-bateko narrazioen *Bapateko Istorioak* proiektuaren barruan, *The Thief of Time* anfiteatrioak bere denbora makinan eramango gaitu bidaian.

Aurten, proiektua *Karrusel* instalazioan sartuta dago. Miss Karusak gonbit egingo digu mamu-feria baten bihotzean sartzeko. Karrusel txiki baten pieza abandonatuek beren lehenagoko bizitzako istorioak kontatuko dizkigute.

'Mama Crea' jakin-minez beteriko lagun taldea da, eta 2005. urtetik ari da arte eszenikoetarako edukiontzi berriak bilatzen. Desberdintasuna, angelu desberdinetatik botatuko begiradak eta konbentzionala ez dena zaizkie erakargarri, eta neurrirra antolatutako produktu artistikoak sortzen dituzte.

FITXA ARTISTIKOA:

**Mama Creak AZrentzat AD-HOC egindako proiektua**

Zuzendaritza artistikoa: **Nuria M.Cres**

Errealizazioa eta muntaketa: **Nuria M.Cres, Idoia Sainz -Trápaga eta Paloma Rico**

Soinu-instalazioa: **Tunipanea**


Jantziak diseinatzea eta egitea: **Ángel Amor**

The Thief of Time: **Juanjo Otero**

Miss Karusa: **Mirian K. Martxante**

[www.mamacrea.com](http://www.mamacrea.com)





ABENDUAK 27 > 29

Osteguna > larunbata

URTARRILAK 2 > 4

Asteazkena > ostirala

LA CASA DEL VACÍO

# Planeta Imaginarioa

Arkitektura

JOZ 1

12:00-14:00 / 17:30-19:30

3€ / 2€ Az txartelarekin | ATARIKO ESPERIENTZIAK EGUNEKO BONUAren barruan (+info: 5 or.)

Euskara, Gaztelania  
Familiientzat. 3 urtetik aurrera

*Planeta Imaginarioa* instalazio kolektiboan, haurrek egiturak eraiki ahal dituzte, era aske eta autonomoan. Ehundura, forma eta kolore desberdinetako material birziklatua erabiliz, etengabeko mugimenduan dagoen instalazio hau handitu egingo da, talde-lanaren eta parte-hartzaileen irudimenaren eta sormenaren bidez.

Eraikitzeko jarraibideak, eta lan egiteko tresnak eta materialak jaso ondoren, haurrek bat-batekotasuna eta esperimendua landuko dituzte eraikuntza-prozesuan, ideiatik planora eta planotik maketara joz. Horrela, kontzeptuak komunikatzeko gaitasuna garatuko dute, gero gauzatu ahal izateko.

'La casa del vacío' arte- eta arkitektura-eskolak museo, ikastetxe eta eskoletan lan egiten du 2011. urtetik, hezkuntzako proiektuak eta instalazioak egiten.



ABENDUAK 27 > 29

Osteguna > larunbata

URTARRILAK 2 > 4

Asteazkena > ostirala

PANPOTX KULTUR ELKARTEA

## Kontu Kontari

Literatura

---

**Erabilera Askotarako Aretoa (Kulturen Ataria)**

**12:00-14:00 / 17:30-19:30**

**Sarrera dohainik leku guztiak bete arte**

Euskara, Gaztelania

0-3 urte. Umeak persona heldu

batekin egongo dira, gehienez

---

*Kontu Kontari*, OtiK 3 urtera bitarteko neska mutikoei zuzendutako dinamizazio tailer hau, Gabonak Arten izango da aurten berriro ere. Espazio ludiko hezigarria, gozatzeko, barre eta jolas egiteko, aurkitzeko, garatzeko, sortzeko, esperimentatzeko, elkarrekin bizitzeko modukoa... Hori guztia inguru atsegina eta erakargarri batean, ipuinak eta jarduerak plastikoak tresna nagusitzat hartuta.

Haurren aisialdi-beharrez arduratzera zuzendutako proiektu kultural honek, umeen ahalmen artistikoen garapenean eragiten du, lehen-irakurleentzako dinamizazio-jardueren bidez.



ABENDUAK 28, 29

Ostirala eta larunbata

URTARRILAK 2 > 4

Asteazkena > ostirala

KREGO-MARTIN DANZA

## Espres Mugimendua

Dantza

**Kulturen Ataria**

**12:00-14:00 / 17:30-19:30**

**Emanaldiak 30 minuturo**

**3€ / 2€ Az txartelarekin | ATARIKO ESPERIENTZIAK EGUNEKO BONUAren barruan (+info: 5 or.)**

Euskara, Gaztelania  
Familientzat. 3 urtetik aurrera

30 minutu ditugu. 30 minutu dantzatzeko, jolasteko, esploratzeko, barre egiteko, partekatzeke...

Gorputza izango da Krego-Martin Danzak proposatzen duen abentura berri honen protagonista, eta mugimendua erabiliko du adierazpide gisa.

Espazioak eta denborak bat egingo dute berriz, eta gure aliatuak izango dira; dena gerta daiteke 30 minututan....

Adin guztietako lagunentzat egokia; aski izango da lurralde ezezagunetatik mugitu eta jolastu nahi izatea. Egin espres mugimendua eta bidaiatu dantzaren mundura...

'Krego-Martin Danza' Begoña Kregok eta María Martínek eratzen dute. 2011. urtean egin zuen estreinaldia BAD Jaialdian, *Así y Restar* kaleko ikuskizunarekin. Konpainia engaiatuta dago ikusle berriak sentsibilizatzeko eta sortzeko ardurarekin, eta familiei eta haurrei zuzendutako lanak ekoizten ditu, umorea eta jolasa ezinbesteko osagaitzat hartuta. Piezen artean, *Spaceko Zarama* eta *Laboratorio Inocencia* nabarmentzen dira. Haien ikuskizunak estatuko eta nazioarteko hainbat jaialditan egon dira ikusgai. Aldi berean, Begoña Krego eta María Martín lan emankorra egiten ari dira Euskadiko dantzaren arloan, elkarlanean aritzen dira hainbat konpainiarekin eta dantzako tailerrak ere ematen dituzte.

[www.krego-martin.com](http://www.krego-martin.com)



ABENDUAK 27

Osteguna

## The Plastic Clono Band

Musika

---

**Kulturen Ataria**

**18:00**

**Sarrera dohanink**

Ingelesa  
Publiko guztiak

---

Kulturen Atarian 'Beatles'-en erritmoa izango dugu entzungai, 'The Beatles'-en omenezko 'The Plastic Clono Band' taldearen eskutik. Taldea Bizkaian kokatuta dago, eta esperientzia zabala du nazioartean.

Hauek dira taldeko kideak: Alfredo Niharra, ahotsa eta gitarra; Miguel A. Fernández, teklatuak, koruak eta gitarra akustikoa; Juan López, baxua eta ahotsak; eta, azkenik, Fernando Ruiz, bateria. Taldeak Estatuan eta nazioartean jo du hainbat jaialdian, besteak beste, hauetan: Liverpool Beatleweek (Erresuma Batua), Beatlesday, Mons (Belgika), Beatlesweekend, Ouistreham (Frantzia) eta Une Journee avec The Beatles, Salon de Provence (Frantzia).

FITXA ARTISTIKOA:

Ahotsa, gitarra: **Alfredo Niharra**


Teklatuak, koruak, gitarra akustikoa: **Miguel A. Fernández**

Baxua, ahotsak: **Juan López**

Bateria: **Fernando Ruiz**

---

[www.facebook.com/THE-PLASTIC-CLONO-BAND](http://www.facebook.com/THE-PLASTIC-CLONO-BAND)



ABENDUAK 27

Osteguna

## Yellow Submarine

Zinema

**Kulturen Ataria. Proiektzioa Eguzkiaren Pantailan**

**19:00 (90')**

**Sarrera dohainik**

JBGA (Jatorrizko Bertsioa  
Gaztelaniaz Azpiztitulatuak)  
Publiko guztiak

«Bazen behin... edo beharbada bitan, lurrekoa ez zen paradisu bat, Pepperland -Piperlandia- izenekoa, eta han zoriontasuna eta musika ziren nagusi oroz gain. Baina ongizate hori mehatxatuta geratu zen, The Blue Meaniesek -Urdin Madarikatuek- gerraren adierazpena egin, eta armada bidali zutenean, Eskularru Hegalari mehatxagarria buru zela, onuragarria zen guztia suntsitu nahian».

Eguzkiaren Pantaila zinema-pantaila bilakatuko da berriz Gabon hauetan, eta 'The Beatles'-en *Yellow Submarine* (1968) film txalotua proiektatuko da. Animazio-film honen oinarria 'The Beatles'-en izen bereko kantua da. Kanadako George Dunning animatzaileak zuzendu, eta United Artists-ek eta King Features Syndicate-k ekoitzi zuten. The Beatles talde

**FITXA TEKNIKOA:**

Jatorrizko izenburua: **Yellow Submarine**

Urtea: **1968**

Iraupena: **90'**

País: **Reino Unido**

Herrialdea: **George Dunning**

Gidoia: **Lee Minoff, Erich Segal, Al Brodax, Jack Mendelsohn**

Musika: **The Beatles**

Fotografia: **Animation**



ABENDUAK 27, 28

Osteguna eta ostirala

PROJETO EZ

## EZ Sub

Antzerkia

---

**Kulturen Ataria**

**13:00-13:50 / 17:00-17:50 (Bidaia: 7')**

**Sarrera dohainik leku guztiak bete arte**

Euskara, Gaztelania, Ingelesa  
Familientzat

Urpeko ontzi bitxi bat orientazioa galdua dabil Kulturen Ataritik. Formatu handiko makina eszeniko bat, ibiltariak beste errealitate batera garraiatzeko gai dena. *EZ Sub-ek* desafio egiten die ideien ausardiari, eta eszenografia eta antzerkia bateratzen ditu, bere esperientzia eszenikoa berrikuntzaren eta zentzumenezko esperientziaren zerbitzura jarritz.

Azkuna Zentroko Kulturen Ataria eratzen duten espazioetatik nabigatuz, *EZ Sub-ek* aktore eta performer bilakatzen ditu ikusleak, hiriko urpeko ontziaren barruan, une bereziak sorraraziz.

'Projeto EZ' 2012. urtean sortu zen, orduan erabaki baitzuten ezinezko ideiak eraikitzea, 'zoramenez, asmamenez eta ErgelkeriaZ' baliatuta. Artisauzko estiloa erabiliz, 'Projeto EZ'-ek eszenako makina bakanak eraikitzen eta sorrarazten ditu, eta bide ematen die ikusleei eragin-truke zuzena izateko edo, besterik gabe, esperientzia bakan bat behatzeko. Interbentzio-izaeraz, antzerki ibiltariko animazio-estiloa da proiektuaren oinarria.

FITXA ARTISTIKOA:

Sorkuntza: **João Pinto**

Eraikuntza: **João Pinto, Luís Seixas**

Ekoizpena: **Kandengue Arts**

Testua eta ahotsa: **Miguel Branca** / Itzulpena: **Jani Dunne, Miguel Branca**

Soinu-efektuak: **José Janeiro** / Mekanikarako laguntza: **José Guedes**

Jantziak: **João Pinto**

---

[www.projetoez.com](http://www.projetoez.com)



**ABENDUAK 28, 29**

Ostirala eta larunbata

**PRODUCCIONES MAESTRAS**

# Martinaren parke fantastikoa

Antzerkia

**Auditorioa**

**18:30 (50')**

**8€ / 6€ Az txartelarekin**

Euskara

6 urtetik aurrera

Martinak sekretu oso berezia kontatu nahi digu. Parkean, arratsaldero joaten den horretan, gauza fantastikoak gertatzen direla kontatu nahi digu. Zure etxe ondoan edo eskola alboan duzun parkearen gisakoa da. Baina Martinarena berezia da. Bertan Martinak hamaika abentura bizi ditu, beldurrei aurre egiten die, abestu dezake edo amets egin, barre edo negar, ez baitu hasierarik ezta amaierarik ere. Ezagutu nahi duzu?

Ikuskizun garaikide proposamen dibertigarria da, eta bertan irudia, proiektzioen bidez, musika, zuzenean abestutako jatorrizko kantekin, eta aktoreen antzezte lana konbinatzen dira. Genero rolak haurtzaroan, norberaren eta besteen onarpena, enpatia eta elkartasuna bezalako baloreak lantzen dira.

**FITXA ARTISTIKOIA:**

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Ana Maestrojuán**

Aktoreak: **Adriana Salvo, Oier Zuñiga eta Txori García Uriz**

Argiztapena: **Koldo Tainta**

Eszenografia: **Koldo Tainta eta Producciones Maestras**

Irudien sorkuntza: **David Bernués. Acrónica Producciones**

Jatorrizko musika: **Gorka Pastor**

Jantziak: **Eduarne Ibáñez**

Produkzioa: **Producciones Maestras**

[www.produccionesmaestras.com](http://www.produccionesmaestras.com)



## ABENDUAK 29

Larunbata

**CARMEN LARRAZ + THIERRY  
MARTINEZ + DANTZAZ**

# Atalak 2.0

Dantza

**Kulturen Ataria**

**19:30**

**Sarrera dohainik**

Publiko guztiak

Thierry Martinezek eta Carmen Larrazek Dantzaz programako sorkuntzako egonaldien emaitza aurkeztuko digute, Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdean dantza garaikideaz biltzeko, entseatzeko eta ikertzeko dugun *Atalak 2.0* espazioaren edizio berrian.

### **CARMEN LARRAZ:** *Electrical Body*

Carmen Larraz sortzaile nafarrak *Electrical Body* aurkeztuko digu. «Iman batek beste baten aurrean nola jokatzeko duen erakusten duen irudi soil bat abiaburutzat hartuta, magnetismoa ezin konta ahala imaginario pertsonaletara eta giza harremanetara eraman dezakegu. Proposamena bota nahi dut, eta, inprobisazioko tresnak erabiliz, interpretatzaile bakoitzaren unibertso pertsonala akuitatu».

Carmen Larraz, Dínamo Danza konpainiako koreografoa izateaz gain, pedagogia eta prestakuntzako jardueretan aritzen da Aulaescena-n, eta dantza garaikideko tailerrak egiten ditu.

### **THIERRY MARTINEZ:** *Contraste*

Thierry Martinez koreografo frantsesak *Contraste* aurkeztuko du. «Dantzari-taldeko kideen kultura-dibertsitatea eta haien nortasun desberdinak» dira ideia horren inspirazioa. Giza pieza bizi bat sortu nahi du, interpretatzaile gazteen jakin-mina adierazteko.

Thierry Martinezek ibilbide sendoa du egina, A. M. Porras eta Norrdans (Suedia) konpainietan aritu baita, eta, gainera, pieza batzuk aurkeztu baititu Le Temps d'Aimer jaialdian (Biarritz). Interpretatzaile gisa, R. Horta, S.Petronio, R. Oller, U. Ivgi eta R. Zappala sortzaileen lanak dantzatu ditu, besteak beste.



Argazkia: Moka Seco



## URTARRILAK 2, 3

Asteazkena eta osteguna

### ZIG ZAG DANZA

# Aupapá

Dantza

#### Bastida Aretoa

13:00 eta 17:30 (35')

8€ / 6€ Az txartelarekin

0-3 urte. Umeak persona heldu  
birekin egongo dira, gehienez

«0 eta 3 urte arteko haurrei zuzendutako ikuskizuna. Pertsona helduekin joan behar dute, aupa ditzaten».

*Aupapá* koreografiako eta keinuzko bakar-saioak ikusle txikien eragin truke bizia sustatu nahi du, gertaera eszenikoan ez-ohikoa den distantzian. Adin horretako txikien jarrera naturalari egokituta eta lau hankatako jarrerako ikuspuntutik, *Aupapá*-k eragin-trukerako espazio bat sortu nahi du, haurtxoek askatasunez parte hartu edota behatu ahal izan dezaten, une bakoitzean haiek erabakitzen duten mailan. Komunikaziorako espazio hau ez da bakarrik ixten barrualdetik lanean ari den interpretatzailearen eboluzioetara, ikusleen espaziora ere bai.

Zentzumenen lan honetan argiak, soinuak, keinuak eta mugimenduak atmosfera atsegina sortzen dute, gordeleku bat eguneroko erritmotik kanpoko denbora lasai behatzeko.

'Zig Zag Danzak' mugimenduaren eta antzerki-izaeraren arteko mugako lurrak aztertu ditu 2000. urtetik, eta berezko mintzaira sortu du ekoizti duen lan bakoitzarentzat. Haren kontzeptu eszenikoan, argiarekin, eta soinu- eta eszena-espazioarekin batera, gorputzaren mintzairak du protagonismoa. Hemeretzi ekoizpen ditu, ikusle helduei eta familiei zuzenduak. Lehen haurtzaroari zuzendutako ikuskizunak sortzen

#### FITXA ARTISTIKOA:

Kontzeptua: **Estrella García eta Miguel Quiroga**

Zuzendaritza eszenikoa - Argiak eta sonorizazioa: **Miguel Quiroga** / Música: **Andy Monroe**

Interpretazioa: **Estrella García** / Ekoizpena eta banaketa: **Zig Zag Danza S.L.**

**2012ko Arte Eszenikoen OH! Saria – Proposamen eszenografikorik onena**

[www.zigzagdanza.com](http://www.zigzagdanza.com)



URTARRILAK 3, 4

Osteguna eta ostirala

ZUM ZUM TEATRE + QUIM BIGAS

# Hippos

Dantza

**Kulturen Ataria**

Familientzat

**Urtarrilak 3, osteguna: 17:30 / Urtarrilak 4, ostirala: 19:30**

**Sarrera dohainik**

Animaliak eta pertsonak egunero elkarrekin bizi diren mundu honetan, saihestetik atera diren hipopotamo batzuegana hurbildu gara. Zer ote dira? Mozorrotutako pertsonak, aldean daramaten animalian mimetizatuta? Edo hipopotamoak, gorputza osatzen duten norbanakoen baitan beren buruaren bila dabiltzala? Hipopotamo hauekin batera joango gara ibilbide bat eginez; eta ibilaldi hori fabula, metafora edo gizateriari eta animaltasunari buruzko doktorego-tesi baten aurreiazko hausnarketa bat izan liteke, bai eta mota guztietako ikusleei zuzendutako proposamen bat ere, denok parte hartzeko modukoa.

‘Zum-Zum Teatre’ proiektu artistikoa 1994. urtetik ari da arte eszenikoak sortzen, ekoizten eta hedatzen, mota guztietako ikusleentzat. Urte hauetan barrena, 18 ikuskizun ekoizti dituzte, eta 4.500 emanalditik gora egin.

Quim Bigas graduduna da, Arte Ederretako masterra du, Koreografia eta Praktika Performatibo Berrien espezializazioarekin, DOCH/Uniarts-en aterata (Stockholm). Koreografia, dramaturgia, informazio-zientziak eta idazketa dira haren intereseko arloak, eta haietan lan egiten du.

## FITXA ARTISTIKOA:

Sorkuntza-taldea: **Quim Bigas eta Ramon Molins**

Zuzendaritza eta koreografia: **Quim Bigas**

Interpretatzaileak: **Albert Garcia, Jordi Gilabert, Maria Mora, Miquel Rodríguez, Carla Tovias**

Diseinua eta produkzioa: **Miguel Ángel Infante. Dulcie Best**

Komisarioa eta laguntza: **Margarida Troguet**

Koordinazioa, logistika eta komunikazioa: **Begonya Ferrer**

Produkzio exekutibo: **Txell Burgués**

[www.zumzumteatre.com](http://www.zumzumteatre.com)



URTARRILAK 3, 4

Osteguna eta ostirala

LAENANANARANJA

## Kontukantari 2. Mendian ibiltari

Antzerkia / Musika

**Auditorioa**

**18:30**

**8€ / 6€ Az txartelarekin**

Euskara

6 urtetik aurrera

Nanu, Granu eta Kanuto txango berri bat egiteko prestatzen ari dira. Arratsalde honetan, mendi tontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat eta...TXIST! Baxuago abestu!! Haurtxo polita sehaskan dago zapi zuritan txit bero...

*Kontukantari*, txotxongiloekin egindako antzerki txalotua, Kontukantari 2, Mendian ibiltari antzerkiarekin datoz bueltan. Oraingo honetan, oroimenean ditugun beste hamar abesti berrikusten ditugu: *Haurtxo polita*, *Axuri beltza*, *Aldapeko*, *Ikusi mendizaleak*, *Loretxo bat*, *Baratze bat*, *Kolpe kolpeka*, *Guk euskaraz*, *Furra furra eta Arratsalde honetan*. Betiko euskal kantak erritmo ezberdinetara eramanez; nagusiek ahaztu ez ditzaten eta txikiek ikas ditzaten.

'Laenanaranja', titiriteroa bokazioz, Bilbon sortu zen 1999an, familia antzerki kritikokonstruktiboa eginez egunerokotasunari aurre egin ahal izateko. Hamabost urteko ibilbide honetan, umeei hurbiltzeko biderik aproposena txotxongiloak direla ikusita, txotxongilo antzerki garaikidea egiten ahalegintzen dira, arte honen historian zehar beste sortzaile askok egindako lana ahaztu gabe.

**FITXA ARTISTIKOA:**

Abeslariak: **Sandra Fdez. Agirre / Aintzane Crujeiras**

Txotxongilo eragileak: **Marta Alvarez, Itziar Fragua / Miren Larrea, Iñigo Eibar / Jon Koldo**

**Vázquez** / Dramaturgia, eszenografia, jantziak eta txotxongiloak: **Laenanaranja**

Musika: **Roberto Castro "Boti", David Nanclares eta Sandra Fdez. Agirre**

Argiztapen diseinua: **Zigor Gorostiola**


Zuzendaritza: **Jon Koldo Vázquez** / Ekoizpena: **Mikel Pikaza**

Jatorrizko ideial: **Sandra Fdez. Agirre eta Mikel Pikaza**

[www.laessistens.blogspot.com](http://www.laessistens.blogspot.com)

**ATARIKO ESPERIENZIAK EGUNEKO BONUA**  
**BONO DE DIA EXPERIENCIAS EN EL ATRIO**

8€ / 6€ Az txartelarekin. **Bapateko Istorioak, Harri, orri, at, Espres Mugimendua eta Planeta Imaginarioa** jarduerak hartzen ditu barnean. Bonua jardueraren aurreko egunean edo egun berean erosi ahal da Infopuntuan 8€ / 6€ con Tarjeta Az. Incluye las actividades **Bapateko Istorioak, Libro, papel o tijera, Movimiento Expres y Planeta Imaginario.** Este bono se puede comprar el día anterior o el mismo día en Infopuntua.



# GABONAK ARTE PROGRAMA

EGUNA DÍA	ORDUA HORA	JARDUERA ACTIVIDAD	DISZIPLINA DISCIPLINA	LEKUA LUGAR	SARRERA ENTRADA	PUBLIKOA PÚBLICO
ABE. DIC. <b>27</b> Osteguna Jueves	Zentroaren ordutegia Horario del centro (pag. 6. or.)	P. WEIBEL & M.GOMMEL <b>Flick_Bi</b>	Arte garaikidea Arte contemporáneo	Ataria Atrio	<b>1€</b>	<b>Publiko guztiak</b> Todos los públicos
	12:00-14:00 17:30-19:30	<b>Harri, orri, at</b> <i>Libro, papel o tijera</i>	Literatura	Ataria Atrio	<b>3€ / 2€ Az txartelarekin</b> con tarjeta Az ●	<b>Familiak</b> Familias ♂ +3 ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	MAMA CREA <b>Bapateko Istorioak</b>	Anzerkia Teatro	Ataria Atrio	<b>3€ / 2€ Az txartelarekin</b> con tarjeta Az ●	<b>Familiak</b> Familias ♂ +3 ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	LA CASA DEL VACÍO <b>Planeta Imaginario</b>	Arkitektura Arquitectura	J02 1 CAC 1	<b>3€ / 2€ Az txartelarekin</b> con tarjeta Az ●	<b>Familiak</b> Familias ♂ +3 ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	PANPOTX KULTUR ELKARTEA <b>Kontu Kontari</b>	Literatura	Erabilera Askotarako Aretoa Sala Polivalente	Doan Libre	♂ 0-3* ♀

<b>ABE. DIC.</b> <b>28</b> <b>Ostirala</b> <b>Vienes</b>	13:00 17:00	<b>PROJETO EZ</b> <b>EZ Sub</b>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	Doan, leku guztiak bete arte Libre, hasta completat aforo	Familiak Familias
	18:00	<b>The Plastic Clono Band</b>	Musika Música	Ataria Atrio	Doan Libre	Publiko guztiak Todos los públicos
	19:00	<b>Yellow submarine (1968)</b>	Zinema Eguzkiaren Pantailan Cine en la Pantalla del Sol	Ataria Atrio	Doan Libre	Publiko guztiak Todos los públicos
	Zentroaren ordutegia Horario del centro (pág. 6. or.)	<b>P. WEIBEL &amp; M.GOMMEL</b> <b>Flick_Bi</b>	Arte garaikidea Arte contemporáneo	Ataria Atrio	1€	Publiko guztiak Todos los públicos
	12:00-14:00 17:30-19:30	<b>Harri, orri, at</b> <i>Libro, papel o tijera</i>	Literatura	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♿ +3
	12:00-14:00 17:30-19:30	<b>MAMA CREA</b> <b>Bapateko Istorioak</b>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♿ +3
	12:00-14:00 17:30-19:30	<b>LA CASA DEL VACÍO</b> <b>Planeta Imaginario</b>	Arkitektura Arquitectura	J02 1 CAC 1	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♿ +3
	12:00-14:00 17:30-19:30	<b>PANPOTX KULTUR ELKARTEA</b> <b>Kontu Kontari</b>	Literatura	Erabilera Askotarako Aretoa Sala Polivalente	Doan, leku guztiak bete arte Libre, hasta completat aforo	♿ 0-3* ♿
	12:00-14:00 17:30-19:30	<b>KREGO-MARTIN DANTZA</b> <b>Espres Mugimendua</b> <i>Movimiento Expres</i>	Dantza Danza	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♿ +3

♿ Gomendatutako umeen adina Edad de niñas y niños recomendada | \* Pertsona heldu bat egongo da gehienez Una persona adulta como máximo | \*\* Pertsona heldu bi egongo dira gehienez Dos personas adultas como máximo

● ATARIKO ESPERIENTZIAK EGUNEKO BONUAREN barruan Dentro del BONO DE DÍA EXPERIENCIAS EN EL ATRIO (+info: pág. 20 or.)

EGUNA DIA	ORDUA HORA	JARDUERA ACTIVIDAD	DISZIPLINA DISCIPLINA	LEKUA LUGAR	SARRERA ENTRADA	PUBLIKOA PUBLICO
ABE. DIC. <b>28</b> Ostirala Viernes	13:00 17:00	PROYECTO EZ <b>EZ Sub</b>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	Doan, leku guztiak bete arte Libre, hasta completar aforo	Familiak Familias
	18:30	PRODUCCIONES MAESTRAS <b>Martinarean par-ke antastikoa</b>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	8€ / 6€ Az txartelarekin con tarjeta Az	♂ +6 ♀
ABE. DIC. <b>29</b> Larunbata Sábado	Zentroaren ordutegia Horario del centro (pág. 6. or.)	P. WEIBEL & M.GOMMEL <b>Flick-Bi</b>	Arte garaikidea Arte contemporáneo	Ataria Atrio	1€	Publiko guztiak Todos los públicos
	12:00-14:00 17:30-19:30	<b>Harri, orri, at</b> Libro, papel o tijera	Literatura	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♂ +3 ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	MAMA CREA <b>Bapateko Istorioak</b>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♂ +3 ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	LA CASA DEL VACIO <b>Planeta Imaginario</b>	Ar-ki-ektura Arquitectura	JOZ 1 CAC 1	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♂ +3 ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	PANPOTX KULTUR ELKARTEA <b>Kontu Kontari</b>	Literatura	Erabilera Askotarako Aretoa Sala Polivalente	Doan, leku guztiak bete arte Libre, hasta completar aforo	♂ 0-3* ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	KREGO-MARTIN DANTZA <b>Espres Mugimendua</b> <i>Movimiento Expres</i>	Dantza Danza	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♂ +3 ♀
	18:30	PRODUCCIONES MAESTRAS <b>Martinarean par-ke antastikoa</b>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	8€ / 6€ Az txartelarekin con tarjeta Az	♂ +6 ♀
	19:30	DANTZAZ <b>Atalak 2.0</b>	Dantza Danza	Ataria Atrio	Doan Libre	Familiak Familias

<b>ABE. DIC.</b> <b>30, 31</b> Igandea, astelehena Domingo, Lunes	<b>Zentroaren ordutegia</b> Horario del centro (pág. 6. or.)	<b>P. WEIBEL &amp; M.GOMMEL</b> <b>Flick_Bi</b>	<b>Arte garaikidea</b> Arte contemporáneo	<b>Ataria Atrio</b>	<b>1€</b>	<b>Publiko guztiak</b> Todos los públicos
<b>2019</b> <b>URT. ENE.</b> <b>1</b> Asteartea Martes	<b>Zentroaren ordutegia</b> Horario del centro (pág. 6. or.)	<b>P. WEIBEL &amp; M.GOMMEL</b> <b>Flick_Bi</b>	<b>Arte garaikidea</b> Arte contemporáneo	<b>Ataria Atrio</b>	<b>1€</b>	<b>Publiko guztiak</b> Todos los públicos
<b>2019</b> <b>URT. ENE.</b> <b>2</b> Asteazkena Miércoles	<b>Zentroaren ordutegia</b> Horario del centro (pág. 6. or.)	<b>P. WEIBEL &amp; M.GOMMEL</b> <b>Flick_Bi</b>	<b>Arte garaikidea</b> Arte contemporáneo	<b>Ataria Atrio</b>	<b>1€</b>	<b>Publiko guztiak</b> Todos los públicos
	<b>12:00-14:00</b> <b>17:30-19:30</b>	<b>Harri, orri, at</b> <i>Libro, papel o tijera</i>	<b>Literatura</b>	<b>Ataria Atrio</b>	<b>3€ / 2€ Az txartelarekin</b> con tarjeta Az ●	<b>Familiak</b> Familias 👤 +3 👤
	<b>12:00-14:00</b> <b>17:30-19:30</b>	<b>MAMA CREA</b> <b>Bapateko istorioak</b>	<b>Antzerkia</b> Teatro	<b>Ataria Atrio</b>	<b>3€ / 2€ Az txartelarekin</b> con tarjeta Az ●	<b>Familiak</b> Familias 👤 +3 👤
	<b>12:00-14:00</b> <b>17:30-19:30</b>	<b>LA CASA DEL VACIO</b> <b>Planeta Imaginario</b>	<b>Ar-itektura</b> Arquitectura	<b>JOZ 1 CAC 1</b>	<b>3€ / 2€ Az txartelarekin</b> con tarjeta Az ●	<b>Familiak</b> Familias 👤 +3 👤
	<b>12:00-14:00</b> <b>17:30-19:30</b>	<b>PANPOTX KULTUR ELKARTEA</b> <b>Kontu Kontari</b>	<b>Literatura</b>	<b>Erabilera Askotarako Aretoa</b> Sala Polivalente	<b>Doan, leku guztiak bete arte</b> Libre, hasta completar aforo	<b>👤 0-3*</b> 👤

👤 **Gomendatutako umeen adina** Edad de niñas y niños recomendada | \* **Pertsona heldu bat egongo da gehienez** Una persona adulta como máximo | \*\* **Pertsona heldu bi**  
**egongo dira gehienez** Dos personas adultas como máximo

● **ATARIKO ESPERIENTZIAK EGUNEKO BONUAREN barruan** Dentro del BONO DE DÍA EXPERIENCIAS EN EL ATRIO (+info: pág. 20 or.)

EGUNA DIA	ORDUA HORA	JARDUERA ACTIVIDAD	DISZIPLINA DISCIPLINA	LEKUA LUGAR	SARRERA ENTRADA	PUBLIKUA PUBLICO
2019 URT. ENE. 2	12:00-14:00 17:30-19:30	KREGO-MARTIN DANTZA <i>Espres Mugimendua</i> <i>Movimiento Expres</i>	Dantza	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familias 0-3 ♂ ♀
	13:00 17:30	ZIG ZAG DANZA <i>Aupapá</i>	Dantza	Bastida Aretoa Sala Bastida	8€/6€ (Az txartela)	0-3** ♂ ♀
2019 URT. ENE. 3	Zentroaren ordutegia Horario del centro (pag. 6. or.)	P. WEIBEL & MCGOMMEL <i>Flick-Bi</i>	Arte garaikidea Arte contemporáneo	Ataria Atrio	1€	Publiko guztiak Todos los públicos
	12:00-14:00 17:30-19:30	<i>Hari, orri, at</i> <i>Libro, papel o tijera</i>	Literatura	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familias 0-3 ♂ ♀
Osteguna Jueves	12:00-14:00 17:30-19:30	MAMA CREA <i>Bapateko Istoriak</i>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familias 0-3 ♂ ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	LA CASA DEL VACÍO <i>Planeta Imaginario</i>	Arkitektura Arquitectura	JUZ 1 CAC 1	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familias 0-3 ♂ ♀
2019 URT. ENE. 3	12:00-14:00 17:30-19:30	PANPOTX KULTUR ELKARTEA <i>Kontu Kontari</i>	Literatura	Erabilera Askotarako Aretoa Sala Polivalente	Doan, leku guztiak bete arte Libre, hasta completar aforo	0-3* ♂ ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	KREGO-MARTIN DANTZA <i>Espres Mugimendua</i> <i>Movimiento Expres</i>	Dantza	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familias 0-3 ♂ ♀
2019 URT. ENE. 3	13:00 17:30	ZIGZAG DANZA <i>Aupapá</i>	Dantza	Bastida Aretoa Sala Bastida	8€ / 6€ Az txartelarekin con tarjeta Az	0-3** ♂ ♀
	17:30	ZUM ZUM TEATRE + QUIM BIGAS <i>Hippos</i>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	Doan Libre	Familias



2019 URT. ENE. 4 Ostirala Viernes	18:30	LAENANANARANJA <i>Kontu kantari 2. Mendian ibiltari</i>	Antzerkia Teatro	Auditorio Auditorio	8€ / 6€ (Az txartela)	♂ +6 ♀
	Zentroaren ordutegia Horario del centro (pag. 6. or.)	P. WEIBEL & MIGOMMEL <i>Flick-Bi</i>	Arte garaikidea Arte contemporáneo	Ataria Atrio	1€	Publiko guztiak Todos los públicos
	12:00-14:00 17:30-19:30	<i>Harri, orri, at</i> <i>Libro, papel o tijera</i>	Literatura	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♂ +3 ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	MAMA CREA <i>Bapateko istorioak</i>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♂ +3 ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	LA CASA DEL VACIO <i>Planeta Imaginario</i>	Ar-kiectura Arquitectura	JOZ 1 CAC 1	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♂ +3 ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	PANPOTX KULTUR ELKARTEA <i>Kontu Kontari</i>	Literatura	Erabilera Askotarako Aretoa Sala Polivalente	Doan, leku guztiak bete arte Libre, hasta completar aforo	♂ 0-3* ♀
	12:00-14:00 17:30-19:30	KREGO-MARTIN DANTZA <i>Espres Mugimendua</i> <i>Movimiento Expres</i>	Dantza Danza	Ataria Atrio	3€ / 2€ Az txartelarekin con tarjeta Az ●	Familiak Familias ♂ +3 ♀
	18:30	LAENANANARANJA <i>Kontu kantari 2. Mendian ibiltari</i>	Antzerkia Teatro	Auditorio Auditorio	8€ / 6€ Az txartelarekin con tarjeta Az	♂ +6 ♀
	19:30	ZUM ZUM TEATRE + QUIM BIGAS <i>Hippos</i>	Antzerkia Teatro	Ataria Atrio	Doan Libre	Familiak Familias

♂ Gomentatutako umeen adina Edad de niñas y niños recomendada | \* Pertsona heldu bat egongo da gehienez Una persona adulta como máximo | \*\* Pertsona heldu bi egongo dira gehienez Dos personas adultas como máximo  
● ATARIKO ESPERIENTZIAK EGUNEKO BONUAREN BARRUAN Dentro del BONO DE DÍA EXPERIENCIAS EN EL ATRIO (+info: pág. 20 or.)